



Aquariumera bisitaldia

Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA
- HIZKUNTZA.

HELBURUAK

- Aisialdiko baliabideak ezagutzea.
- Bioaniztasunaz jabetzea.

MATERIALAK

- ◆ Irudien fotokopia.
- ◆ 9 DIN A-5 fitxak garatzeko.
- ◆ DIN A-4 bat azala eta kontrazala egiteko.
- ◆ Idaztekoa eta margotzekoa.
- ◆ Lekeda.

EGINKIZUN HONETAN aquariuma bisitatzea proposatzen dizuegu. Horretarako, landa-koaderno bat osatu behar duzue, ikusiko duzuen aberastasunaz jabetzeko, batetik, eta berri emateko, bestetik.

Karta bikoteen jolasa

Klasekoekin akuariumeko bisita egin aurretik, lana banatu behar da. Horretarako, ezkutatutako karta bikoteen jolasaz baliatuko gara. Bi karta berdina lortzeko, itsasoko biztanleen marrazkien bi fotokopia handitu behar dituzu (marrazki gehiago egin ditzakezue). Kartak bereiztu eta nahasi ondoren, ahoz behera koka itzazu. Txandaka kide bakoitzak bi altxa ditzake, eta bikotea osatuz gero, jarrai dezake kale egin arte.

Bisitako fitxak osatu

Bakoitzak aurreko pausoa topatutako itsasoko biztanle berberak aurkitu beharko ditu aquariumean, geroago irudia koloreztatu eta fitxan bertan itsasteko.

Horrez gain, horien sailkapena, ezaugarriak... ere zehaztu egin behar dituzue: landareak ala animaliak diren; kasu horretan, ornodunak ala ornogabeak diren; zein itsasotan bizi diren; itsaso horren urak hotzak, epelak edo beroak diren, etab.

Era berean, interesgarria izango da zehaztea galtzeko arriskuan

dagoen, edota gizakiok asko alagutxi harrapatzen dugun...

Koadernoan egin

Bisita bukatutakoan, ikaskideekin elkartu, topatutakoaren berri eman eta fitxak elkartu. Koadernoaren

azala eta aurkibidea idatzi. Dena aurrean izanik, saia zaitezte itsasoko zenbait biztanle aukeratzen: ikusgarriena edo arraroena; aurkitzeko zailena; animalia eta landareen artean sailkatzeko zailena; galtzeko arriskurik handiena duena...

